

Lauroko ekosistema PLANIFIKAZIOA
DBHko 1. mailako Plastika arloa 2025-2026 ikasturtea (iraila-abendua)

IRAILA 15-19	
1. JARDUERA	Ikas-egoeraren, helburuen, landuko ditugun ikas-edukien, jakintzen, ebaluazio-irizpideen, planteamenduaren eta baliabideen azalpena egitea. Plastika arloan erabiltzen ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan Lauroko ekosistema proiektua eta ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea. UNetxeak egindako 15. GJHaren azalpen bideoa ikustea. TEKNIKA DIGITALA: ARGAZKIGINTZA Argazkiak nola egin azaltzea: irudia elementuekin ongi betetzea, elementuetara hurbiltzea eta irudia koadratzea. Ereduak ikusi eta aztertzea. Ikastolako ingurunean Lauroko ekosistemari buruzko argazkiak egitea iPada erabiliz. Bitartean, Lauroko ingurunea aztertzea eta aurkitutako hondakinen bilketa eta garbiketa egitea.
IRAILA 22-26	
2. JARDUERA	OHIKO TEKNIKA: MARRAZKETA Marrazkiak nola egin azaltzea: irudia elementuekin ongi betetzea eta irudia koadratzea. Ereduak ikusi eta aztertzea. Ikastolako ingurunean Lauroko ekosistemari buruzko marrazkiak egitea orri zuriak, arkatzak eta margoak erabiliz. TEKNIKA DIGITALA: ARGAZKIGINTZA Ikastolako ingurunean Lauroko ekosistemari buruzko argazkiak egitea iPada erabiliz. Bitartean, Lauroko ingurunea aztertzea eta aurkitutako hondakinen bilketa eta garbiketa egitea.

IRAILA 29-URRIA 3	
3. JARDUERA	OHIKO TEKNIKA: MARRAZKETA Ikastolako ingurunean Lauroko ekosistemari buruzko marrazkiak egitea orri zuriak, arkatzak eta margoak erabiliz. TEKNIKA DIGITALA: ARGAZKIGINTZA Ikastolako ingurunean Lauroko ekosistemari buruzko argazkiak egitea iPada erabiliz. (GUZTIRA 10 argazki gutxienez). Bitartean, Lauroko ingurunea aztertzea eta aurkitutako hondakinen bilketa eta garbiketa egitea.
URRIA 6-10	
4. JARDUERA	TEKNIKA DIGITALA: MARRAZKETA SketchBook aplikazioa azaltzea marrazki digitalak egiteko. Ikastolako ingurunean egindako argazkiak oinarri bezala erabiliz, ikasleek euren marrazki digitalak egitea.
URRIA 13-17	
5. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Lauroko ekosistemak proiektua atalean Kolorearen teoria aurkezpena irakurri eta aztertzea, koloreen ezaugarriei buruzko edukiak ulertu eta menperatzeko. TEKNIKA DIGITALA: MARRAZKETA Koloreen ezaugarrietan oinarrituta (kolore gamak, kolore osagarriak, kolore hotzak eta beroak...) SketchBook aplikazioan egindako marrazki digitalak koloreztatzea kolore armoniak, kontrasteak eta abar aplikatuz.
URRIA 20-30	
6. JARDUERA	TEKNIKA DIGITALA: MARRAZKETA Koloreen ezaugarrietan oinarrituta (kolore gamak, kolore osagarriak, kolore hotzak eta beroak...) SketchBook aplikazioan egindako marrazki digitalak koloreztatzea kolore armoniak, kontrasteak eta abar aplikatuz.

AZAROA 3-7	
7. JARDUERA	OHIKO TEKNIKAK: ESTANPAZIOA Ikastolako ingurunean bildutako Lauroko ekosistemaren materialak erabiliz hauen estanpazioak egitea hostoak, adarrak, tenperak, pintzelak, arrabolak eta abar erabiliz.

AZAROA 10-14	
8. JARDUERA	OHIKO TEKNIKAK: ESTANPAZIOA Ikastolako ingurunean bildutako Lauroko ekosistemaren materialak erabiliz hauen estanpazioak egitea hostoak, adarrak, tenperak, pintzelak, arrabolak eta abar erabiliz.

AZAROA 17-21	
9. JARDUERA	Portafolioa eta portafolio digitala nola egin azaltzea. Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntzaren <i>Atalak eta osotasuna</i> pentsamendu trebetasuna lantzea portafolioaren atalak ezagutzeko. Portafolioa egitea: proiektuan zehar egindako irudien bilduma antolatzea. Paperean egindako lanaren argazkiak eginez eta editatuz, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz. Hauek dira portafolioak izan behar dituen atalak: 1. Izenburua eta izen-abizena: ereduaren formatua, letra mota, tamaina eta itxura errespetatuz. 2. Irudiak sailkatuta: marrazkiak paperean, argazki digitalak, marrazki digitalak eta estanpazioak. Paperean egindako lanaren argazkiak eginez eta editatuz, eta irudi hauek gehi irudi digitalak (argazkiak eta marrazkiak) erabiliz portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea eta Showbiera pdf formatuan eta era egokian izendatuta bidaltzea: Abizenalzena_PORTAFOLIOA.

AZAROA 24-28	
10. JARDUERA	Portafolioa egitea: proiektuan zehar egindako irudien bilduma antolatzea. Paperean egindako lanaren argazkiak eginez eta editatuz, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz. Hauek dira portafolioak izan behar dituen atalak: 1. Izenburua eta izen-abizena: ereduaren formatua, letra mota, tamaina eta itxura errespetatuz. 2. Irudiak sailkatuta: marrazkiak paperean, argazki digitalak, marrazki digitalak eta estanpazioak. Paperean egindako lanaren argazkiak eginez eta editatuz, eta irudi hauek gehi irudi digitalak (argazkiak eta marrazkiak) erabiliz portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea eta Showbiera pdf formatuan eta era egokian izendatuta bidaltzea: Abizenalzena_PORTAFOLIOA. Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera ematea hauek portafolioan txertatuz.

ABENDUA 1-4	
11. JARDUERA	Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera ematea hauek portafolioan txertatuz.